



ZER DA EUSKARALDIA?

Nahi edo ahal bezainbeste egiten ote duzu euskaraz?

Euskaraldia hizkuntza ohiturak euskarara gehiago ekar ditzazun lagunduko dizun ariketa praktikoa da. Hau da, **euskaraz gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin egiteko elkarrekin egiten dugun ariketa sozial erraldoia.**

NOIZ EGINEN DUGU?

Gaur bertan has zaitezke praktikatzen, baina, Euskaraldia ariketa **maiatzaren 15etik 25era izango da, 11 egunez.**



NORK PARTE HAR DEZAKE?

Euskaraz ulertzen duten 16 urtetik gorako herritarrek.

NOLA EGINEN DUGU?

Denek batean ! **Ahobizi edo belarriprest txapa jantzita.** Txapak aurrean dugunari mezu argia helarazten dio: **nirekin egizu euskaraz, lasai!**



1. LEHEN HITZA EUSKARAZ EGITEA

Ezagutzen ez duzun horri galdera bat egin nahi diozunean, edo saltegi edo ostatu batera zoazenean, **zein hizkuntza erabiltzen duzu lehen eskaera hori egiteko?** Pentsatu gabe egiten dugunean, **askotan, erdarara jotzen dugu.**

Hala, lehen hitza euskaraz egiteko ohitura hartuta sorpresa on asko jasoko ditugu eta euskarari bide asko zabalduko dizkiogu, segur!

2. ERDARAZKO ERANTZUNA ESKURATURIK ERE, EUTSI EUSKARARI!

Euskara ulertzen duen horrekin, zergatik ez euskaraz mintzatu? **Erdaraz erantzuten badizu ere, ulertzen duen bitartean, zuk euskaraz mintzatzen jarrai dezakezu.** Elkar ulertzea izanik helburua, hori ere ohitura kontua besterik ez da!

Beraz, erraiozu euskaraz ulertzen duen lagun horri, Euskaraldiak irauten duen 11 egun horietan bederen zuk euskaraz egingo diozula.

ETA ZUK EGIN ALA EZ, ESKATU ZURI EUSKARAZ EGIN DIEZAZUTEN!

NIREKIN BETI EUSKARAZ!

